

Jose txo Mendia Azurmendi

Iruña -Veleia, etenik gabeko suntsiketa

Iruña-Veleia, una destrucción que no se detiene



Jose txo Mendia Azurmendi. (Beasain, 1966). Lanbidez nekazaria da, baratzezain ekologikoa eta Biolurreko kidea. Afizioz, aldiz, historia zalea eta Iruña-Veleia Martxan-eko kidea. Elkar te honen izenean, hilero, lehen igandean, bisitak gidatzen ditu aztarnategian.

Jose txo Mendia Azurmendi. (Beasain, 1966). Agricultor de profesión, es horticultor ecológico y miembro de Biolur. Es aficionado a la historia y miembro de la asociación Iruña-Veleia Martxan. En nombre de esta asociación, ofrece visitas guiadas en el yacimiento cada primer domingo de mes.

11.1. Laburpena / Resumen / Abstract

a) Iruña -Veleia, etenik gabeko suntsiketa

Hitzaldi honetan Iruña -Veleiako aztarnategian ondarearen aurka EHUko Julio Núñez arkeologoak eta Arabako Foru Aldundiaren esanetara dagoen Quark arkeologi enpresak, urteetan zehar eginiko suntsiketez arituko naiz. Ondarearen aurkako ekimen hauek hamalau urtean zehar luzatu dira.

2010. urtean Julio Núñez arkeologoak eskabadora erabiliz 5.000 m² inguru suntsitu zituen oinarrizko haitza jo arte. Lan hauen aurkako salaketa ipini zen, baina epaileak ez zuen kontutan hartu. Bere esanetan azaleko lurra (50 zm) baino ez zen kendu. Hamalau urte beranduago 1,70 metroko lubakia agerikoa da. 2015. urtean arkeologo berak Errosetoien Etxean sartu zuen eskabadora, euskaraz idatzitako hainbat grafito topatutako lekuan. Oraingo honetan ere salaketa ez zen kontutan hartu. Epailearen arabera, belarra ereiteko lanak ziren. Inoiz ez da ikusi belarra abenduan eta eskabadora erabiliz ereiten denik.

Azkenik 2023. urtean zehar Quark enpresak, eskabadora erabiliz, hainbat suntsiketa eragin ditu aztarnategiko eremu ezberdinetan. Harresi barnealdean 1,5 metro sakon eta 3 metro zabal duen lubakia zulatu du 120 metroko luzeran. Harresiko ate txikiaren inguruan 4 metroko sakonera duen 200 m²ko eremua zulatu du oinarrizko harria jo arte. San Juan Monastegi inguruan ere harria agerian utzi arteko hainbat zulo egin ditu eta harresiko sarrera nagusi inguruan 2,5 metroko sakonera duen 20 m²ko zuloa egin du, hemen ere eskabadora erabiliz.

Oraingo honetan ere epaitegiak gure salaketa atzera bota du. Bere ustez Aldundiak txosten arkeologiko propioa izango du eta erakunde honek sekula ez du ondarearen aurka egingo. Beraz, guk aurkeztutako txosten arkeologikoa iritziz kontrajarri bat baino ez da, eta ez du aintzat hartzen.

b) Iruña-Veleia, una destrucción que no se detiene

A lo largo de esta ponencia trataré sobre las destrucciones que durante estos últimos 14 años han llevado a cabo en el yacimiento de Iruña-Veleia el arqueólogo de la UPV Julio Núñez y la empresa de arqueología Quark a las órdenes de la Diputación Foral de Álava.

En el año 2010 el arqueólogo Julio Núñez destruyó, utilizando la excavadora, aproximadamente 5.000 m² arrasando todos los estratos hasta dar con la roca madre. Se interpuso una denuncia contra esta actuación, que el juzgado no admitió. A su parecer, solo se había extraído la tierra de remoción (50 cm). Hoy, catorce años después, es posible contemplar un talud de 1,70 metros. El año 2015, este mismo arqueólogo metió la excavadora en La Casa de los Rosetones, lugar en que se habían encontrado varios grafitos escritos en euskera. Nuevamente se interpuso una denuncia que el juzgado desestimó. En su opinión tan solo se trataba de unos trabajos de jardinería con el objetivo de sembrar césped. Jamás se ha visto que se siembre césped en diciembre utilizando una excavadora.

Por último, durante el año 2023, la empresa Quark ha sido responsable de la destrucción, mediante el uso de la excavadora, de distintos enclaves del yacimiento. En la parte interior de la muralla y a lo largo de más de 120 metros ha excavado una trinchera de 1,5 metros de profundidad por 3 metros de ancho. En la zona interior de la puerta pequeña de la muralla (poterna), ha excavado un agujero de aproximadamente 4 metros de profundidad en un espacio de 200 m² hasta dar con la roca madre. En el lugar en el que se ubica el monasterio de San Juan, también ha abierto varios espacios hasta dar con la roca. Por último, al lado de la puerta sur de la muralla, abrió un espacio de 20 m² y una profundidad aproximada de 2,5 metros.

También en esta ocasión, las asociaciones SOS Iruña -Veleia e Iruña- Veleia Martxan presentamos una denuncia en el juzgado, aportando un informe arqueológico que la avalaba. El juzgado la desestimó aduciendo que suponía que la Diputación tendría su propio informe arqueológico y que esta institución jamás actuaría contra el patrimonio. Y según el juzgado, el informe arqueológico presentado por nosotros no es más que una opinión contrapuesta que no toma en consideración.

c) Iruña-Veleia, a never ending destruction

In this paper I will discuss the destruction carried out over the last 14 years at the Iruña-Veleia site by the University of the Basque Country's archaeologist Julio Núñez and the archaeological company Quark, under the orders of the Provincial Council of Alava (DFA).

In 2010, the archaeologist Julio Núñez destroyed, using a bulldozer, approximately 5,000 m², razing all the layers until he found the bedrock. A lawsuit was filed against this action, which the court did not admit. In their opinion, only the removal soil (50 cm) had been extracted. Today, fourteen years later, it is possible to contemplate a slope of 1.70 metres. In 2015, the same archaeologist put the bulldozer into the rose window house, where several graffiti written in Basque had been found. Once again, a lawsuit was filed, which the court dismissed. In their opinion, it was only gardening work for the purpose of sowing grass. It has never been seen that grass is sown in December using a bulldozer.

Finally, during 2023, the company Quark was responsible for the destruction, by the use of a bulldozer, of several enclaves of the site. In the inner part of the wall and for more than 120 metres, it dug a trench 1.5 metres deep and 3 metres wide

In the inner area of the small gate of the wall (poterna), it dug a hole approximately 4 metres deep in a space of 200 m² until it found the bedrock. In the area where the monastery of San Juan is located, it has also opened up several spaces until it found the bedrock. Finally, next to the south gate of the wall, it opened a space of 20 m² and a depth of approximately 2.5 metres.

Also on this occasion, the associations SOS Iruña-Veleia and Iruña-Veleia Martxan filed a lawsuit, providing an archaeological report to back it up. The court dismissed it on the grounds that it assumed that the DFA would have its own archaeological report and that this institution would never act against the historic heritage. And, according to the court, the archaeological report presented by us is nothing more than an opinion that is not worth taking into consideration.

11.2. Ponentzia euskeraz / Ponencia en castellano a continuación/ Presentation

a) Sarrera

Iruña-Veleia euskal arkeologiaren puntu beltza bihurtzen ari da. Arabako Foru Aldundiak, apiriletik hona, aztarnategiko hainbat eremu suntsitu ditu hondeamakinaren bidez, eta arkeologiaren arau guztiak hautsi ditu, [Xabier-Gorrotxotagik](#) egindako txostenean ikus daitekeenez. Xabier Historian lizentziaduna eta eskarmentu handiko arkeologoa da. Zoritxarrez, ez da lehen aldia, eta, dirudienez, ez da azkena izango, Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak gure ondareari etengabe egiten dioten eraso honen aurrean, dirulaguntzak galtzeko beldurrez isilik dauden herri honetako kultur eragileen erantzun eskasa ikusita.

Inguru horien txikizioarekin, jadanik 7 eremu dira hondeamakinak suntsitutakoak, grafitoen faltsukeriaren aitzakiarekin Lurmen kanporatu zutenetik, eta gai hori bide zientifikotik Lurmeni argitzen utzi gabe. Hemen gertatzen ari dena ulertu ahal izateko, bi gai gogoratu behar dira: batetik Eliseo Gilek 2007an 50 grafito garrantzitsuenak datatzea eskatu zuela, egiazkoak diren ala ez jakiteko, eta ukatu egin ziotela. Eta bi aldeek kontrolatutako katak ere egiteko eskatu zuela, eta ukatu egin ziotela.

Izan ere, adreiluz idatzitako testuak datatu daitezke termoluminiszentzia proba egin aurretik; kaltzio karbonatoa edo letren gainean patinak dituztenak ere, karbonato hori osatzeko zenbat mende behar izan diren edo patina horiek zenbat denbora daramaten aztertuta; eta kedar-hondarrak dituztenak eta hezurak c-14ren bidez datatu daitezke, horrela hezurak antzinakoak balira, haietan antzeko zerbait idatzi ahal den egiaztatuz. Bada, ez da horrelako ezer egin.

Eta bi, epaiketean Lurmenen aurkako froga zientifiko bakarra zera izan zela, aztertutako grafito bakanetan metal modernoan hondarrak zeudela gainean, baina aztarna horiek, seguruenik, garbiketa prozesutik etor zitezkeen edo grafitoak aluminiozko erretiluetan edukitzeagatik. Izan ere, 5-10 mikra baino ez zituzten. Faltsutu izan balitz, zeramika batean idazteko egin behar den presioak 50-100 mikrako hondarrak sortuko lituzkeela erakutsi zuen epaiketean Lurmeneko perituak.

Ikus ditzagun aztarnategian hondeamakina sartu duten lau aldiak:

b) 2010eko uztaila

Lehenengo suntsiketa EHU-UPVko Arkeologia Sailak egin zuen haiek Lurmen kanporatzen lagundu ondoren. EHU indusketara sartu berria zenean, egin zuen lehenengo gauza eremu zabal bat eraustea

izen zen hondeamakina harlauzetaraino sakonduta. Txostenean gehienez 50 zentimetro baino ez zutela eskabadoraz altxatuko adierazi zuten baina, [bideoan](#) ikusten den bezala, hori gezurra da eta harlauzetaraino sakondu zuten, metro eta erdi baino sakonago, gainean zeuden estratu guztiak suntsituz.

Suntsitutako eremuan urte batzuk lehenago Lurmenek kata batzuk egin zituen eta pieza garrantzitsu bi topatu zituen: penintsula osoan dagoen abezedariorik zaharrena eta beste grafito bat. Beraz, oso larria izan zen EHUK egin zuena eta Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ontzat eman zutena

Suntsiketa honen errudunak hauek izan ziren: EHUKo Arkeologia arloko irakasleak eta Arabako Foru Aldundia.

c) 2015eko abendua

Bigarren suntsiketa, EHUK egindakoak ere egin zuen. Lehenengo suntsiketa bidez grabatu zenez eta ondoren asko zabaldu zenez, bigarren suntsiketa ezkutuan egin zuten, 2015eko abenduaren asteburu batean, neguan, ia inor bertaratzen ez dela aprobetxatuta. Suntsiketa egin ondoren ere, arrasto gutxiago utzi zuten, izorratutako eremua berriz lurrez bete zutelako eta gero belarra erein zutelako.

Suntsitutako eremua arkeologikoki leku aberatsenean egin zuten: Errosetoien etxean. Hor ere grafito oso garrantzitsuak topatu zituen Lurmenek: kristautasunari dagozkion nabarmenenak, hala nola, Geure Ata, Kalbarioa..., baita euskerazko garrantzitsuenak ere: sua-lurra, koloreak aipatzen dituen grafitoa...

Suntsiketa Lurmenek induskatu ez zuten eremuan egin zuten. Suntsiketa honen errudunak berriz ere EHUKo Arkeologia arlokoak eta Arabako Foru Aldundia izan ziren.

d) 2018ko uztaila

Hirugarren suntsiketa, txikiena izan zen, harresi ondoko bidea altxatu zutelako baina ez zutelako 50 zentimetro baino gehiago sakondu. Hala ere bide baten aztarnak topatu ziren eta gehiago induskatu eta aztertu beharrean korrika estali zuten zati batzuk kalteak jasan ondoren.

Hirugarren suntsiketaren errudunak Aldundiaz gain, Eusko Jaurlaritzaz eta Bibat Museoko arduradunak izan ziren.

e) 2023eko maiatzetik orain arte

Azken urte honetan, egoera txarragoa da. Qark enpresa, Aldundiaren agindupean, aztarnategia suntsitzen ari da, orain arte egin ez den bezala. 2023ko maiatzean, hiru metroko zabalera eta metro bateko sakonera zuen lubaki bat ireki zuten harresiaren barruan, 100 metroko luzerakoa. Geroago, harresiko ate txikiaren inguruan indusketak egin zituzten 4 metroko sakoneraraino, hondeamakina erabiliz eta urte askoan leku horretan egindako estratu guztiak suntsituz. Eta urtarrilean, San Joan komentuari ondoko eremu osoa altxatu dute, eta inolako begirunerik gabe geruza arkeologiko guztiak suntsitu dituzte.

Azken suntsipen larri horien errudunak, Aldundiaz, Eusko Jaurlaritzaz eta Bibateko arduradunaz gain, Qark enpresa da.

f) Beste suntsipen batzuk

Tamalez, gure ondarea beste askotan ere erasotua izan da, eta ez bakarrik Iruña-Veleian. Esate baterako, Iruñeko Gaztelu Plaza, haren substratuak hein handi batean suntsituak izan baitziren. Edo, oraintsuago, Gasteiz ondoko herri kalkolitikoaren hondakinak ere suntsitu dira, abiadura handiko trenaren azpian estali zirenak, zubi bat egin nahi ez zutelako, eta abar.

4.3. Ponencia en castellano

a) Introducción

Iruña-Veleia se está convirtiendo en el punto negro de la arqueología vasca. La Diputación Foral de Alava, desde abril hasta ahora, ha destruido varias zonas del yacimiento con la excavadora saltándose todas las normas de la arqueología tal como se puede comprobar en el informe realizado por [Xabier-Gorrotxotagi](#) licenciado en Historia y experimentado arqueólogo. Por desgracia no es la primera vez y parece que tampoco será la última viendo que ante este ataque permanente a nuestro patrimonio por parte de la Diputación y el Gobierno Vasco la nula respuesta por parte de los agentes culturales de este país que están tristemente callados por miedo a perder las subvenciones.

Con el destrozo de éstos entornos, son 7 en total las partes del yacimiento que han sido arrasadas por la excavadora desde que expulsaron a Lurmen con la excusa de la falsificación de los grafitos y sin dejarle que se aclarase por la vía científica este tema. Es necesario recordar, para poder entender lo que está pasando aquí, dos temas: por un lado que Eliseo Gil solicitó en el 2007 que se datasen los 50 grafitos más importantes para saber si son verdaderos o no y le negaron. Y que pidió que se hiciesen catas controladas por ambas partes y también se lo negaron.

Y es que se pueden datar los textos escritos en ladrillos antes de cocer con la prueba de termoluminiscencia; los que tienen carbonato cálcico o pátinas encima de las letras mirando cuántos siglos se ha necesitado en formarse dicho carbonato o cuánto tiempo llevan esas pátinas encima; los que tienen restos de hollín y los huesos con c-14, comprobando luego si fuesen antiguos los huesos, si es posible escribir en ellos algo parecido. Pues bien, nada de esto se ha realizado.

Y dos, que en el juicio la única prueba científica contra Lurmen fue que en los pocos grafitos analizados había restos de metales modernos encima, restos que podían venir del proceso del lavado, de haber tenido los grafitos en bandejas de aluminio... ya que solo tenían 5-10 micras. Si se hubiese falsificado, la presión que hay que hacer para poder escribir en una cerámica produciría restos de 50-100 micras tal como demostró el perito de Lurmen en el juicio.

Veamos las 4 veces que han introducido la excavadora en el yacimiento:

b) Julio 2010

La primera destrucción la realizó la sección de arqueología de la UPV-EHU, una vez que ellos apoyaron su expulsión. Cuando la UPV acababa de entrar a trabajar en la excavación, lo primero que hizo fue destruir una amplia zona con excavadora, donde introdujo la pala hasta las losas. En el informe se indicó que sólo se levantarían 50 centímetros de tierra con dicha excavadora, pero como se ve en el [video](#) eso es falso y se excavó hasta las bases de las calles, hasta las losas, destruyendo todos los estratos que había encima, es decir, hasta más de metro y medio de profundidad.

En la zona devastada, años atrás Lurmen realizó unas catas y encontró dos piezas muy importantes, una de ellas el abecedario más antiguo que hay en toda la península y otro grafito. Por lo tanto, fue muy grave lo que hizo la UPV pero la Diputación y el Gobierno Vasco dieron por buena esta actuación.

Los culpables de esta destrucción fueron los responsables del área de Arqueología de la UPV/EHU y la Diputación Foral de Alava.

c) Diciembre del 2015

La segunda destrucción también la realizó la Sección de Arqueología de la UPV. Como la primera destrucción fue grabada en video y ampliamente difundida, se aseguraron que la segunda destrucción no fuera en verano sino que la hicieron un fin de semana de diciembre del 2015, aprovechando que en esa época nadie visita la zona. Una vez hecha la destrucción, dejaron menos restos de lo realizado porque volvieron a llenar de tierra la zona afectada y luego sembraron hierba.

La zona destrozada fue hecha en un lugar más rico arqueológicamente: la casa de los Rosetones, donde se encontraron los grafitos más importantes en el tema cristianismo, como Geure Ata, el Calvario..., así como los más importantes en el tema del euskera: sua-lurra, el grafito con los colores...

La destrucción se produjo en la zona que dejó Lurmen sin excavar. Los responsables de esta segunda destrucción Los culpables de esta destrucción volvieron a ser los responsables del área de Arqueología de la UPV/EHU y la Diputación Foral de Alava.

d) Julio 2018

La tercera fue la de menor destrucción, porque levantaron el camino junto a la muralla pero no profundizaron más de 50 centímetros. Sin embargo, se encontraron restos de un camino, y en lugar de excavarlo y examinarlo, lo cubrieron rápidamente.

Los responsables de esta tercera destrucción además de la Diputación fueron el Gobierno Vasco y responsables del Museo Bibat.

e) De mayo del 2023 hasta ahora

Este último año vamos a peor. La empresa Qark, a la orden de Diputación, está arrasando el yacimiento como no se había hecho hasta ahora. En mayo de 2023 abrieron una trinchera de tres metros de ancho y un metro de profundidad en el interior de la muralla, de unos 100 metros de longitud. Más tarde excavaron en torno a la pequeña puerta de la muralla hasta una profundidad de unos 4 metros utilizando la excavadora y destruyendo todos los estratos conformados durante muchos años en este lugar. Y en enero han levantado toda la zona junto al convento de San Juan, arrasando todos los estratos arqueológicos sin ningún miramiento.


Los culpables de estas últimas y graves destrucciones son, además de la Diputación, Gobierno Vasco y responsables del Bibat, la empresa Qark.

f) Otras destrucciones

Lamentablemente nuestro patrimonio ha sido atacado en muchas otras ocasiones y no solo en Iruña-Veleia. Por ejemplo, la Plaza del Castillo de Pamplona cuyos substratos fueron en gran parte arrasados. O también más recientemente se han destruido los restos del poblado calcolítico situado junto a Gasteiz que fueron cubiertos bajo el tren de alta velocidad por no querer hacer un puente, etc.

2010eko uztaila

Lehenengo suntsiketan eskabadora harlauzetaraino sartu zuten, metro eta erdi baino sakonago, gainean zegoen guztia suntsituz.



Julio 2010

En la primera destrucción introdujeron la excavadora hasta las losas, más de metro y medio, destruyendo todo lo que había encima.

2015eko abendua

Bigarrenean Errosetoien Etxean sartu ziren, Eliseok euskerazko eta kristau arloko grafito garrantzitsuenak topatu zituen lekuan, adibidez, "Geure Ata" ("Gure aita", Padre nuestro" otoitzaren hasiera)



Diciembre 2015

En la segunda se introdujeron la pala en la Casa de los Rosetones, donde Eliseo encontró los grafitos más importantes en euskera y temática cristiana, como el "Gure Ata", que es el comienzo de la oración del Padre nuestro.

2018ko uztaila

Hirugarren aldian eskabadoraz harresi inguruko bidea altxatu zuten. Eskuartzte hau ez zen hain kaltegarria izan, metro erdia baino gutxiago sakondu zutelako. Hala ere, bidea ikustean gelditu behar izan ziren, eta arkeologikoki aztertu.



Julio 2018

La tercera vez levantaron con la excavadora el camino alrededor de la muralla. Esta intervención no fue tan perjudicial porque profundizaron menos de medio metro. Sin embargo, debieron detenerse al ver el camino y estudiarlo arqueológicamente.

Laugarren eskabadoraldia basatiena izaten ari da: 450 metro karratu suntsitu dituzte



La cuarta introducción de la excavadora está siendo la más está destruyendo: 450 metros cuadrados arrasados arqueológicamente.

2023ko apiriletik aurrera

Alboko atean suntsiketa ikaragarria izan da: 4 metroko sakoneraino zegoen guztia isurtegira bota eta estratu guztiak apurtu dituzte. Ez dituzte ezta lurreko harlauzak utzi nahi izan, aztarna txikiena topatu ez dadin.



A partir de abril de 2023

En la puerta lateral el destrozo ha sido escalofriante: un grandísimo agujero de hasta 4 metros de profundidad arrasando todos los estratos arqueológicos que había. Ni siquiera han querido dejar las losas del suelo para que no se encuentre el menor resto arqueológico.

Eta San Juan komentuari ingurune guztia ere altxatu dute, inolako lan arkeologikorik egin gabe: suntsiketa hutsa



Y el entorno del convento de San Juan también han levantado todo sin hacer ningún trabajo arqueológico: pura destrucción

**16 urtez laborategi ezagunetan datatu nahi ez dituzten zenbait grafito. Zergatik izango da?
Algunos grafitos que llevan 16 años sin querer datarlos. ¿Por qué será?**

Grafito hau oso garrantzitsua, "Geure Ata" (Padre Nuestro) otoitzaren hasiera delako, gaztelerazkoa eta beste hizkuntzetakoa baino mende batzuk lehenagokoa izan litekeena. Ez dute aztertu nahi. Noizkoa den jakiteko erraza da: zenbait letra estaltzen duen karbonato kaltzikoaren analisiaren bidez, hor zenbat denbora daraman aztertzea.



Este grafito es muy importante, ya que es el comienzo de la oración del Gure Ata (Padre Nuestro), que podría ser siglos anteriores a las del castellano.... No quieren estudiarlo. Es fácil saber de cuándo es: solo hay que analizar cuánto tiempo lleva ahí el carbonato cálcico que cubre algunas letras.

Grafito hau (lura/sua) adreilu batean eginda dago eta termoluminizenziaren bidez jakin daiteke noizko den, egosi aurretik idatzi omen zelako. Proba hau ez dute egin nahi izan nahiz eta Eliseok orain dela 16 urte eskatu.



Este grafito (lura-sua) está fabricado en un ladrillo, y con la prueba de termoluminiscencia se puede saber cuándo se escribió, porque se escribió antes de cocer. No quieren realizar esta prueba a pesar de que Eliseo la solicitó hace 16 años.

Marrazkiaren gainean kedar aztarnak daude. Horiek C-14ren bidez jakin daiteke noizkoak diren. Proba merkea da, 1.000 euro baino gutxiago balio du baina ez dute egin nahi. Zergatik?



Sobre el dibujo hay restos de hollín. A través de C-14 se puede saber de cuándo son. La prueba es barata, cuesta menos de 1.000 euros pero no quieren hacerlo. ¿Por qué?

1. suntsipena [Bideoa](#)
2. suntsipena <http://euskerarenjatorria.eus/?p=20916>
Elxepuru [Juan Martin Elxepuru](#)
3. suntsipena <http://euskerarenjatorria.eus/?p=31579&lang=es>

ARGAZKI GEHIAGO

a) Lehenengo suntsiketa 2010



b) Atearen suntsiketa eta itxuraldaketa 2023-2024



c) Harresiaren suntsiketa eta itxuraldaketa 2023-2024



d) Pompeia Valentina, San Juan, botatako lurra

